

B E U S K A R A R E N B E R R I P A P E R A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA

Europako Batzordearen dirulaguntzak euskararentzat

Eremu urriko hizkuntzak sustatu eta babesteko asmoz, Europako Batzordeko XXII. Zuzendaritza Orokorrak (Hezkuntza, Prestakuntza eta Gazteria) dirulaguntzak ematen ditu urtero-urtero irakaskuntzan, kulturaren eta informazioaren munduan Batasuneko eremu urriko hizkuntzak eta kulturak sustatu edo laguntzeko helburua duten ekimenentzat.

1995ean era honetako dirulaguntzak gehitu egin dira. Denetara 3,93 milioi Ecu, hau da, 613.550.000 pta, eman dira, Europa osoko eremu urriko hizkuntzei zegozkien 170 proiektutan banaturik.

Europako Elkarrearen dirulaguntza eskatu. duten proiektu askorén artean, Euskal Autonomi Elkarrean, Nafarroak eta Iparraldeak euskararekin lotuta dauden 48 proiektu aurkeztu dituzte. Horietatik 17 aukeratu dira, 310.000 Ecu, hau da 48.400.000 pta, jaso dituztenak

Euskararekin artez loturiko egitasmo hauetaz gain, beste bost proiektutan, eremu urriko beste hainbat hizkuntzarekin batera (katalana, frisia, bretoinera, okzitana, etab.) agertzen da euskara.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak aholkularitza eta bitartekaritza lanak egin ditu eskatu zaizkion guztietan.

Denetara hamaika izan dira Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bitartez aurkeztu diren egitasmoak. Horietatik zazpi jaso dituzte dirulaguntzak.

1996 eta 1997rako deialdia
1995 urteari dagozkion dirulaguntzak izendatu eta gero, batzordeak 1996 eta 1997 urteetako deialdia kaleratu du.

Helburu nagusiak, lehenetsuta duten eremuak eta hautaketarako irizpideak aurreko urteetan erabilitako berberak dira. Horrela, lehenetsuta izango dute irakaskuntzaren maila desberdinetan landu beharreko pedagogi egitasmoek, irakasleen prestakuntzak, haurrentzako eta helduentzako argitalpenek, irakaskuntzarako materialek, hizkuntzen erabilera normaltzeko lanek, hitzaldiek, mintegiek, kultur adierazpenek, komunikabideetan erabiliko diren hizkuntzek, etab.

Egitasmoak hautatzerakoan haintzat hartuko diren irizpideak hauek izango dira, besteak beste: egitasmoak izan lezakeen dimentsio europarra, hau da, bi hizkuntza komunitateren edo Batasuneko bi estaturen parte hartzea, egitasmoak izan lezakeen eragin

biderkatzailea edota presa, kalitatea eta kostoaren eta eraginaren arteko lotura.

Egitasmoak aurkezteko epeak hauek dira: 1996ko martxoaren 15a, urte bereko ekainaren 15ean hasiko diren proiektuentzat; 1996ko ekainaren 15a, urte bereko urrian hasiko direnentzat; 1996ko azaroaren 15a, 1997ko martxoaren 15ean hasiko diren egitasmoentzat eta 1997ko apirilaren 15a, urte bereko irailean hasiko diren guztientzat.

Aurten ere proiektuak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bitartez aurkeztu ahal izango dira.

Berri gehiago nahi duenak erakunde honetara dei egin dezala. Tel.: (945) 18 81 14.

Europako Batzordearen dirulaguntzak 1996 eta 1997rako deialdia

1996

- Martxoak 1, ekainaren 15ean hasteko.
- Ekainak 15, urrian hasteko.
- Azaroak 15, 1997ko martxoaren 15ean hasteko

1997

- Apirilak 15, irailean hasteko.

José María Jimeno Jurío, historialari nafarra

José María Jimeno Jurío, 68, pozik dago. Iragan azaroan Artaxonako historialari, ikerlari eta etnografoak lagun askoren omenaldia jaso zuen Iruñean. Aldi berean, Txalaparta argitaletxeak berritua eta osatua kaleratu zion aspaldi Iruñeko aurrezki kutxa batek argitaratu ez zion Historia de Pamplona y de sus lenguas liburua. Pozik egoteko modukoa zen, bai, Iruñeko eta Tafallako udalek, historiazale, euskaltzale eta kulturazale nafarrek eskaini zioten gorazarreak liburu berreskuratuaren oparia baitzeraman. Eman zioten makilak eta lagunen hitz xamurrek inoiz izandako atsekabeak ahaztarazi zizkieten.

Atzean geratzen dira Iruñeko apaizgaitegian igaro zituen urteak. Baita irakaskuntzan egin zuen garaia ere. Harez gero, Nafarroako geografia, historia, euskal toponimia eta folkloreak buruzko lan asko eman ditu argitara. Agian historia izan da gehien landu duen espezialitatea. Zenbaiten hitzetan, Jimeno Juríok herrien historia



José M^a Jimeno Jurío

jorratzen du, gizartea osatzen duten gizon eta emakumeen eguneroko bizitza azaltzen baitu. Lan oparoa dauka egina.

Liburuak. Hainbat liburu idatzi ditu: *Documentos medievales artajonenses (1968)*, *¿Dónde fue la batalla de Roncesvalles? (1974)*, *Historia de Pamplona. Síntesis de una evolución (1974)*, *Navarra jamás dijo no al Estatuto (1977)*, *Las clases sociales de Navarra durante la Edad Media (1980)*, *Historia de Navarra. Desde sus*

origenes hasta nuestros días.

Toponimia. Iruñea eta

Iruñerriko tokien izenak bildu eta aztertu ditu lan askotan. Gehienak Euskaltzaindiaren *Onomastica Vasconia* bilduman argitaratuak, hainbat liburukitan.

Aldizkariak. Artikulu mordoa idatzi du aldizkari hauetan: *El Miliario*, *Príncipe de Viana*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, *Euskera*, *Dantzariak eta Punto y Hora*. *Príncipe de Viana* aldizkarian, esate baterako, Artaxonari, bere jaioterriari, hainbat ikerlan eskaini dizkio.

Historia de Pamplona y de sus lenguas liburuan Nafarroako hiriburuaren historia eta mendetan zehar iruindarrek erabili dituzten hizkuntzak aztertzen ditu. Jimeno Juríoren ustez euskara mendetan zehar hitz egin da Iruñeko kaleetan. Hizkuntza erromanikoak (okzitaniarra, gaztelera eta nafar erromantzea) goi karguek erabiltzen zituzten. Herri xeheak, ordea, euskara.

Jimeno Jurío ohorezko euskaltzaina da.

"Zehazki-mehazki" kalean da berriro. Badira urte batzuk Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintzetarako Zuzendaritza *Zehazki-mehazki* liburua argitaratzen hasi zela. *Zehazki-mehazki* Euskadiko erakunde publiko eta pribatuek gazteei ematen dizkieten laguntzak, bekak, dirulaguntzak eta antzeko eskaintzak jasotzen ditu.

"Ostiela!" aldizkaria plazaratu da. Durangoko azken azokan *Ostiela!* izeneko aldizkari berria azaldu zen, Paperzaleak Kultur Elkartearen eskutik. Arduradunak Jon Mikel Arano, Iñaki Segurola, Balendin Tramon eta Ramon Ugalde dira. Literatura ezezik, beste gai batzuk ere lantzen ditu. Lehen zenbakian P. Aristik, T. Irastortzak, K. Izagirrek eta P. Perurenak idazten dute, besteak beste.

Ikeder literatur agentzia sortu da. Alejandro Zugaza durangarrak -Leopoldo Zugazaren semea denak- Ikeder izeneko literatur agentzia sortu du, hainbat lagunekin batera. Agentziaren lana idazlea ordezkatzeko da argitaratzaileekin dituen harremanetan. Idazlearen agenda eta konpromezuak ere antolatzen ditu. Agentzia berriaren bezerorik ezagunena Bernardo Atxaga idazlea da.

Lizardiren kazetaritza lanen antologia. Lourdes Otaegik Joxe Maria Agirre Lizardiren kazetaritza lanen antologia bat kaleratu du *Euskera aundiki-soñekoz* izenburupean, Euskal Editoreen Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin argitaratzen duen Klasikoak bilduman. Liburuak Lizardiren 32 artikulu biltzen ditu, bi motatakoak: euskarari buruzkoak eta euskal-literaturaren ingurukoak.

"Xirrixtarekin Jolasean" proiektua abian jarri da

Donostiako Bagerak eta Hendaiaiko Xirrixtazaleak Elkartek mugaz bestaldeko eta eskualdeen arteko lankidetzak dakarren "Xirrixtarekin Jolasean" izeneko proiektu interesgarria abiarazi dute.

Jai eta jolasaren bidez, haurren euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna sustatzea da proiektu honen helburu nagusia. Horretarako, haurrek *Xirrixta* aldizkaria izango dute oinarri, aldizkari honetako zenbaki guztietan, bitarteko didaktiko baliogarriak eskaintzen dira eta joko, tailer, ipuin eta komikiak).

Donostiako eta Hendaiaiko 20 ikastetxe eta kultur etxetan hainbat jai egingo dira eta, guztira, lau eta zortzi urte bitarteko 2.000 haurrek parte hartuko dute.

Egitasmo hau 1995-1996 ikasturtean gauzatuko da, abendutik maiatzera, hain zuzen. Urtarrileko egutegiaren arabera, lau jai ospatuko dira: Axular, Herrera Herri Ikastetxea, San José de Calasanz eta Maria Reina

eskoletan.

Proiektu hau aurrera eramatea posible izan da, batez ere Europako erakundeek, Europako Batzordeak eta Europako Kontseiluak emandako dirulaguntzari esker. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskadi-Akitalia-Nafarroa Elkarkidetzak Fondoak ere laguntzen dute proiektu hau.

Xirrixta Iparraldean sortu zen 1992an. Euskal Kultur Erakundeak argitaratzen du, Frantziako Tolosako *Toboggan* haur aldizkaria eredutzat hartuz. Osoki kolorez egingo da eta sail mordoak ditu. Helburu pedagogikoak ditu, baina ezeren aurretik irakurtzeko atsegina sustatu nahi du.



Jon Alonso, 37, itzultzaile iruindarrak Katebegi Galdua bere lehen eleberria plazaratu du Susa argitaletxean. Orain dela gutxi Idiaren Eraman Handia saiakera argitaratu zuen. Jon Alonso Nafarroako Parlamentuko itzultzailea da.

Miren Gotzone Barandika, 29, kimikari durangarrak gai cum laude goraipamena merezi izan du Nafarroako Unibertsitatean termokimikaz, sintetizazioaz eta oxidazioaz egin duen doktorego tesia dela eta. Kimika EHUn ikasi eta gero, Donostian egin du doktoradutza.

Nekane Larrañaga, 28, ikerlari azpeitiarrak Deustuko Unibertsitateko Soziologia eta Politika Zientzietako Fakultatean aurkezturiko Euskal Herriko Gaztetxoaren Euskararekiko Jarrerak eta Jokabideak doktorego tesiak gai cum laude goraipamena merezi izan zuen. Doktore berriak ikerkuntza lanetan dihardu fakultate horretan.

Argitalpenak

Katalogo Orokorra 1990-1995.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartek, EIZIEk, Literatura Unibertsala izeneko bildumaren Katalogo Orokorra eman dute argitara, iaz argitaratutakoaren jarraipena, hain zuzen ere. Orain arte argitaratutako itzulpenen eta euskaratzen ari direnen berri ematen du.



EUSKARAREN BERRIPAPERARA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako
Sailordetza
Wellingtono Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
Helbidea:
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka


Sentsibilizazio kanpaina

G• Hizkuntza Politikarako Sailordetzak orain arte bi sentsibilizazio kanpaina antolatu eta ibili ditu Euskal Herrian barrena. Bada besteren bat egiteko asmorik?

E• Bai, aurretik egindakoen haritik azken ikuituak ematen ari gara Ahoz aho, belaunez belaun sentsibilizazio kanpainari. Oraingo hau Hezkuntza eta Kultura Sailaren elkarlanaren ondorio izango da, eta herriz herri ibiliko da legealdi osoan zehar.

Kanpaina honen bitartez, guraso eta gurasogaien euskararen aldeko jarrerak sendotu nahi dira, hizkuntzaren jarraipenean duten erantzukizunaz jabearazi, eta erakutsi eskolak, familiak eta gizarteak helburu bererako egin behar dutela lan: hizkuntza jakin eta arlo guztietan erabiltzeko. Hiru horiek dira eta, hizkuntzaren transmisiorako hiru zutabe nagusiak.

Dena den, kanpaina honen berri zehatzagorik emango da datorren hilabeteetan



Jose M. Zeberio
Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia.

Unescoren Albistariaren asmo berriak

"Lehenengo kolpean ulertzeko modukoa: komunikatzailea", horrelakoa nahi dute arduradunek Unescoren Albistaria. Hori dela eta, aro berriari ekin dio Albistariak bere hamargarren urtemugan.

Unescoren Albistaria goitik behera itzulia denez, arduradunek bi aldaketa nagusi egitea erabaki dute: alde batetik; itzulpenean euskara egokiagoa erabiltzea, Albistaria gehiago hurbiltzeko irakurleari. Bestetik, zenbaki bakoitzean lau orrialdeko gehigarria argitaratzea aldizkariaren barnealdean.

Unescoren Albistariaren itzulpen lana Miren Arratibelek egiten du. Berak itzuli eta Pello Esnalek gainbegiratu. Paristik hiru hizkuntzatan jasotzen dira originalak: gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.

Barnealdeko koaderniloak duen elementurik interesgarriena hauxe

da: aldizkaritik hartutako artikuluen baten hiru itzulpen desberdin. la hitzez hitzekoa, eta ulergaitza, lehenengoa; erraztasuna bilatu guran leialtasunean galdu duena bigarrena; eta, denetan jatorrena eta zehatzena den hirugarrena. Irakurlearen aurrean, beraz, testu originala eta hiru itzulpenak. Euskara ikasten, irakasten eta lantzen ari direnentzat ariketa ezin hobe. Eta, zer esanik ez, itzulpengintzan ari diren guztientzat.

Unescok. orain 48 urte sortu zuen, Albistaria. Hilabetekaria da, baina euskarazkoari dagokionez 1992tik hona urtean lau aldiz kaleratzen da. Euskaltegi guztietara banatzen da, doan. Harpidetza egin nahi izanez gero, 1.450 pta balio du. Unescoren Albistariaren arduraduna Juxto Egaña da. Tel.: (943) 41 26 00.

✓ Kontutan hartzeko

• **Jose M^a Zeberio Parisen hitz egingo du.** Urtarrilaren 29an, Jose M^a Zeberio Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Parisko Cervantes Institutuan hitz egingo du, "Espainiako Autonomi Elkartetako Hizkuntza Politikak" gaiaren inguruko mahainguruan.

• **Pasaian II. Ipuin Lehiaketa.** Pasaiaiko Udal

Euskaltegiak II. Ipuin Lehiaketaren deialdia zabaldu du. Euskaraz idatziak beharko dute, gaia edozein izan daitekeelarik. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 12an amaituko da. Udal Euskaltegira bidali behar dira. Euskadi Etorbidea, 61, 20110 Pasaia. Tel.: (943) 39 33 18.

• **Windows 95.** 96ko urtarrilean aurkeztuko da.

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA